

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

**Behin betiko onespena, Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillan udal hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuaren erabilerak arautzen dituen eskualdeko ordenantzaren aldaketa, 2020ko irailaren 30ean argitaratua**

Guardia-Arabako Errioxa Kuadrillako Batzarrak 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran hartutako erabakiaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea igaro da. Erabaki hori 2022ko azaroaren 25eko 135 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen, eta Guardia-Arabako Errioxa Kuadrillan udal-hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuaren erabilerak arautzen dituen eskualde-ordenantzaren aldaketaren hasierako onarpenari buruzkoa da. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, erabaki hori behin betiko egiten da eta argitara ematen da 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

ALHAOn argitaratu ondoren eta Toki-Jaubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan adierazitako hogeita hamar egun baliouduneko epea igaro ondoren jarriko da indarrean aldaketa hau, eta indarrean jarraituko du geroago aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean. Behin betiko onartuko da, eta honela idatzita geratuko da:

1. artikuluko 1. apartatuan, Guardiako udalerrria sartzeko da, eta honela geratzen da:

1.1. Ordenantza honen xedea da Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak konpostajera bideratutako zerbitzuak emateko eta Mañuetan, Eltziegion, Kripanen, Bastidan, Guardian, Lantziegon, Lapuebla de Labarcan, Lezan, Lezan, Oionen, Moredan, Navaridasen, Samaniegon, Villabuenan eta Ekoran sortutako udal-hondakin ez-arriskutsuak biltzeko eta tratatzeko baldintzak arautzea.

Lehenengo xedapen gehigarria

1. artikuluko 1. paragrafoan jasotako udalerrietan aplikatu beharreko ordenantza guztiak indarrrik gabe geratzen dira, ordenantza honetan xedatutakoarekin kontraesanean edo horren aurka badaude.

Laguardian, 2023ko urtarrilaren 13an

*Presidentea*

**JOSEBA FERNÁNDEZ CALLEJA**